



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

ALDUNDIKO LIBURUTEGIAK 8,8 PUNTUKO BATEZ BESTEKO NOTEA LORTU DAU ERABILTZAIILEEN ARTEAN

- **Aldundiak ez dau Ahaldun Nagusiaren Kabineteak eraikin horren hirugarren solairua okupetearen inguruko “erabagirik hartu”.**
- **Euskara, Kultura eta Kirol sailak kirolean euskerea sustatzeko BIKEE proiektuaren balantzea egin dau Bizkaiko Batzar Nagusietan**

(Bilbon, 2022ko apirilaren 26an). Lorea Bilbao Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak azken eretxi-inkestan batez beste “8,8 puntu” lortu dituan Aldundiko Liburutegiak erabiltzaileei eta beharginei jagokenez dituan ontasunen errepasoa egin dau Bizkaiko Batzar Nagusietan. Asebetetzea, oro har, “bikaina” da, Bilbaoren esanetan. Erabiltzaileen % 98a “oso pozik edo pozik” dago kultura-eskaintzeagaz eta instalazioakaz. Eta “ia erabiltzaile guztiak” erdiguneko kultura-esparru horretara “itzultzeko prest dagoz”.

Balorazio horreek Elkarrekin Bizkaia taldeak eskatutako agerraldian emon dira gaur. Bertan, beharginek eta erabiltzaileek Aldundiaren Liburutegiaren egoeraren eta funtzionamentuaren inguruan dituen “kexak” jaso dira. Talde horrek egiaztatu dauen azkenengo ardurea hirugarren solairuko espazio bat Aldundiaren administrazio arloko erabilerarako hartzeko aukerea izan da. Hector Medrano batzordekideak azaldu dauenez, “600 sinadura baino gehiago” batu ditue daborduko, Ahaldun Nagusiaren Kabineteko beharginek egoitza hori hartu ez daien.

Gai horri jagokenez, Bilbaok ziurtatu dauenez, ez dago espazio horren okupazioaren inguruko “erabagirik hartuta”, baina, halangorik balego zentroarentzat eragina “ahalik eta txikiena” izango litzateke. Foru Jauregiko beharginak etorkizunean egin behar diran obra batzuk dirala eta lekualdatu behar diranez, Aldundia “hainbat aukera” aztertzen ari da, baina argi itxi dau beharginen derrigorrezko lekualdatzearen inguruko erabagia “ez dagoala hartuta”. Aldundiak hartu dauen erabagi “bakarra” “beharginek obretako zaratak jasan behar ez izatea da, euren beharra baldintza onenetan egin ahal izateko”.

Bilbaok gogorarazo dauenez, liburutegiaren funtzio nagusia antxinako funtsak kontserbetea da, ikertzaileen eskura jarteko. Bere garaian, ikasteko gelak egokitu ziran, “gure eskumenen artean egon ez arren”, gizartean horretarako preminea egoala onartuta. Alderdi morearen itaunei erantzunez, Bilbaok adierazo dau “ez dagoala biltegi-erabilerara irregularrik, eta ez dala halangorik egon behar”, eta berak dakien ez dirala plazak kendu ikasketa-aretoetan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Balantzeagaz jarraituta, Bilbaok esan dau “500 personak” osatu dabela bisita gidauen programea. Liburutegiak “25 ekintza kultural” egin ditu 2021ean. Funtsen aurrez aurreko kontsultei jagokenez, urtebetean 11.140 postu presentzial eta hemeroteka digitalera 569.000 bisita izan ziran. Inkestea bete daben personek ez dabe hobekuntza-punturik antzeman bertako instalazioetan, eta, besteak beste, garbitasuna, erosotasuna eta ingurumen-baldintzak nabarmendu ditue balorazioetan.

BIKEE - BIZKAIAN KIROLA BE EUSKARAZ PROIEKTUA

Euskara, Kultura eta Kirol diputatua EH Bilduk eskatuta be etorri da batzordera, Bizkaiko eskola-kirolean euskerearen erabilereari buruzko azkenengo datuen balantzea egiteko, eta, zehatzago, 2017ko martian Euskera Bizian egindako hausnarketa estrategikoaren barruan sortu zan BIKEE -Bizkaian Kirola Be Euskaraz- programaren balantzea egiteko.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko kirol-sareagaz lankidetzan, lurraldeko kirol-sisteman parte hartzen daben persona eta erakunde guztien artean “euskerearen erabilerea sustatzeko” pausua emon eban. Lehenengo fasean –2021era arte–, Bizkaiko federazio guztien borondatezko parte-hartzea erakartea izan da lanaren ardatza. Gaur egun, Bizkaiko “39” kirol-federazioak (Bizkaian 44 federazio dagoz guztira) osatzen dabe BIKEE proiektua. 3 urteko epean laguntzak jasoten ditue teknikarien eta beharginen euskalduntzea errazteko. Prozesu horretan, federazio bakotxagaz jarduketa-plan independenteak gauzatu dira. Horreetatik “19” oinarrizko mailan dagoz, “13” bitarteko mailan eta “7” maila aurreratuan, Bilbaok egiaztatu dauenez.

Arretea federazioetan jarri ostean, igaztik Lorea Bilbaok zuzentzen dauen saila buru-belarri aritu da Bizkaiko alkarte eta klubak inpliketan. Holan, Aldundiarentzat beharrian ari dan Artez enpresea hartu-emonetan jarri da Bizkaiko eskualdeetako kirol-erakundeakaz, “bilera teknikoan” bidez. Hobekuntza-prozesu horretan “Jokatu” prestakuntza-programea be sartzen da.

Sailak uste dau kirola “oso esparru egokia” dala gizartean euskerearen erabilerea hobetzeko, “hizkuntza-paisaia ezin hobea” eskaintzen daben “hainbat profiletako” personak batzen ditualako, besteak beste, gazteak, entrenatzaileak, epaileak, enpresak, boluntarioak, komunikabideak...

Bilbaok emondako datuen arabera, kirolarien % 33k erabilten dabe euskerea eta % 63 elebidunak dira. Datu horreen aurrean, % 5ak gaztelania bakarrik erabilten dau. Teknikariei jagokenez, % 80k euskerearen ezagutza “ona edo ia ona” daukie.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Entrenatzaileen % 36k erabilten dau, eta ezelango ezagutzarik ez daukienak % 5 baino ez dira.

EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia kritiko agertu dira programeagaz, eskola-kirolean lortu dan euskerearen erabilera mailea dala eta. Zigor Isuskiza Arana ahalduna “kezkatuta” agertu da euskerearen erabilera “oso urria” dalako eskola-kirolaren “esparru guztietan”. Egoerea “larria” da, eta euskerearen erabilera eremu ez-formal horreetara zabaldu daiten “sendo” jokatzeko eskatu deutso Aldundiari.

Bilbaok azpimarratu dauenez, euskal erakundeek plan ugari egin ditue, eta BIKEE plan “integrala” da eta eskualde “guztietara” zabaldu da. Itzulerarik garrantzitsuena ez dira lortutako erritmoak, “gailurrera alkarregaz heltzea” baino, “danok soka berean”, eta orain arte, “inor ez da programaren kontra agertu, eta inork ez dau atzerapausurik emon. BIKEEri atxiki jakozan erakundeei jagokenez, danak ari dira aurrera egiten”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA BIBLIOTECA FORAL OBTIENE UNA NOTA MEDIA DE 8,8 PUNTOS ENTRE LAS PERSONAS USUARIAS

- La Diputación “no ha tomado ninguna decisión” sobre la ocupación de la tercera planta de este edificio por parte del Gabinete del Diputado General.
- El departamento foral de Euskera, Cultura y Deporte ofrece un balance en las Juntas Generales de Bizkaia del proyecto BIKEE, para el fomento del euskera en el deporte.

(Bilbao, a 26 de abril de 2022). La diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte, Lorea Bilbao, ha hecho un repaso en las Juntas Generales de Bizkaia de las bondades para usuarios y trabajadores de la Biblioteca foral, cuyos servicios han obtenido una nota de media de “8,8 puntos” en el último sondeo de opinión. La satisfacción global es “excelente” según Bilbao. El “98%” de sus usuarios se muestra “muy satisfecho o satisfecho” con la oferta cultural y las instalaciones. Y la “práctica totalidad” de sus usuarios y usuarias se muestra “dispuesta a volver” a este céntrico recinto cultural.

Estas valoraciones han sido ofrecidas hoy en una comparecencia solicitada por el grupo Elkarrekin Bizkaia, que ha traído las “quejas” de trabajadores y usuarios sobre el estado y el funcionamiento de la Biblioteca Foral. El último descontento que ha constatado este grupo ha sido la posible enajenación de un espacio de la tercera planta para uso administrativo de la Diputación. El juntero Héctor Medrano ha explicado que se han recogido ya “más de 600 firmas” para que esta dependencia no sea ocupada por personal del Gabinete del Diputado General.

En este asunto, Bilbao ha asegurado que “no hay ninguna decisión tomada” sobre la ocupación de este espacio, aunque de haberlo, la afección sería “la mínima posible” para el centro. Ante la necesidad de trasladar a trabajadores del Palacio foral por unas futuras obras, la Diputación está estudiando “diferentes alternativas”, si bien ha dejado claro que la decisión sobre el necesario traslado del personal “no está tomada”. La “única” decisión tomada por la Diputación es la de que el personal “no conviva con el ruido de las obras, para que se pueda realizar el trabajo en condiciones óptimas”.

Bilbao ha recordado que la función principal de la biblioteca es la conservación de fondos antiguos para ponerlos al servicio de investigadores. Se pusieron salas de estudio en su día “aún no siendo nuestra competencia”, pero aceptando que había una necesidad social. A preguntas de la formación morada, Bilbao ha señalado que “no hay



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

usos irregulares de almacenamiento, ni debe haberlos”, y que no tiene constancia de que se hayan eliminado plazas en las salas de estudio.

Siguiendo con su balance, Bilbao ha cifrado que “500 personas” han completado el programa de visitas guiadas. La Biblioteca ha desarrollado “25 actividades culturales” en 2021. En cuanto a las consultas presenciales de fondos, fueron 11.140 puestos presenciales, y 569.000 visitas en un año a la hemeroteca digital. Las personas encuestadas no han detectado puntos de mejora en sus instalaciones, destacando en sus valoraciones la limpieza, la comodidad y las condiciones ambientales, entre otros aspectos.

PROYECTO BIKEE - BIZKAIAN KIROLA ERE EUSKARAZ

La diputada de Euskera, Cultura y Deporte ha comparecido también para hacer balance, a petición de EH Bildu, de los últimos datos de uso del euskera en el deporte escolar de Bizkaia y más, en concreto, del programa BIKEE -Bizkaian Kirola Ere Euskaraz- que surgió en marzo de 2017 en el marco de la reflexión estratégica llevada a cabo en Euskera Bizia.

La Diputación Foral de Bizkaia, en colaboración con el tejido deportivo de Bizkaia, dio un paso para “fomentar el uso del euskera” entre todas las personas y organizaciones que participan en el sistema deportivo del territorio. El trabajo en una primera fase – hasta 2021- se ha centrado en captar la participación voluntaria de todas las federaciones vizcaínas. A día de hoy, son “39” las federaciones deportivas vizcaínas (de las 44 existentes en Bizkaia) que forman parte del proyecto BIKEE. Reciben ayudas durante un periodo de 3 años para facilitar la euskaldunización del personal técnico y de sus trabajadores. En el proceso se han desarrollado planes de actuación independientes con cada federación, de las que “19” se encuentran en un nivel básico, “13” en un nivel medio y “7” en un nivel avanzado, ha constatado Bilbao.

Tras poner el foco en las federaciones, desde el año pasado el departamento que dirige Lorea Bilbao se ha centrado en implicar a asociaciones y clubes de Bizkaia. En este sentido, la empresa Artez que desarrolla el trabajo para la Diputación, ha contactado ya con entidades deportivas de las distintas comarcas de Bizkaia a través de “reuniones técnicas”, proceso de mejora en donde se incluye también el programa formativo “Jokatu”.

El departamento cree que el deporte “es un ámbito muy adecuado” para mejorar el uso del euskera en la sociedad ya que recoge personas de “diferentes perfiles”, entre las que ha citado jóvenes, entrenadores, árbitros, empresas, voluntarios, medios de comunicación....., que ofrecen “un paisaje lingüístico óptimo”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Según los datos ofrecidos por Bilbao, el 33% de los deportistas hacen uso del euskera y el 63% se muestran bilingües, frente a un 5% que solo utiliza el castellano. Respecto al personal técnico, el 80% tienen un conocimiento “bueno o casi bueno” del euskera. El 36% de los entrenadores y entrenadoras lo usan y solo un 5% no tienen ningún conocimiento.

EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia ha sido críticos con el programa debido a los niveles de uso de euskera alcanzados en el deporte escolar. El apoderado Zigor Isuskiza Arana se ha mostrado “preocupado” por el “muy escaso” uso del euskera “en todos los ámbitos” del entorno deportivo escolar. La situación es “grave” y ha pedido a la institución foral “actuar con firmeza” para que el uso del euskera se extienda a estos ámbitos no formales.

Bilbao ha destacado que las instituciones vascas han hecho numerosos planes y que BIKEE es un plan “integral” que se ha extendido a “todas” las comarcas del territorio. El retorno más importante no son los ritmos alcanzados, sino “llegar a la cima de forma conjunta”, “en la misma cordada”, y hasta ahora “nadie se ha mostrado en contra del programa y nadie ha dado un paso atrás. Todos están avanzando”, en referencia a las entidades que se han adherido a BIKEE.